

1995eko URRIAREN 17ko BILKURA BEREZIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko urriaren hamazazpian, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga, Julian Zubeldia Aierbe, Ramon Bengoetxea Altuna eta Jose Arzadun Egiluz; Manuel Barriola Tolosa Udalkidea ez da bilerara agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez du inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Berezian bildu dira, gai hau tratatu delarik:

LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUETAKO 3. AREAREN DESJABETZA ESPEDIENTEAREKIN AFEKTATUTAKO ERASANDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN, OKUPATU BEHARRAREN ERABAKIAREN BEHIN BETIKO ONARPENERAKO PROPOSAMENA

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluaren, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko ekainaren hamalauko erabakiaren bidez, Lizartza Udalerriko "B" motatako Planeamenduko Arau Subsidiarioak behin betiko onartuak izan zirela eta, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko urriaren bateko udal batzarraren erabakiz, Laguntzazko Arauetako 3. Areari dagokion, desjabetza espedientea hasi zela, zeinean, jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatua onartu zen.

Ikusirik, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko urriaren bateko udal batzarraren erabakiz hasitako, okupatu beharraren espedientea, Auzitegi Gorenaren Seigarren Sekzioko Hirugarren Salaren Autoz errebokatutako suspentsioagatik, geldirik egon dela.

Ikusirik, geldituta egon den epean, Udalak, akordio batera iristeko asmoz, espropiazio espedientean afektatutako jabeekin harremanak eduki dituela, erabat alferrikakoak izan direlarik.

Ikusirik, Derrigorrezko Desjabetzapen Legeko 17.gn. artikulua eta Erregelamenduaren konkordatuak diotenaren arabera, mila bederatziehun eta laurogeitazortziko urriaren bateko udal batzarrean, desjabetza espedientearen afektatutako jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatuarekin, Okupatu Beharraren erabakia onartu zela.

Ikusirik, erabaki hori, 215 eta 343 zenbakiko 1.988ko azaroaren 16 eta abenduaren 28ko E.H.A.A.etan eta 1.988ko Abenduaren 9ko 232 zenbakiko G.A.O. argitaratua izan zela, jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatuari alegazioak egiteko 15 eguneko epea emanaz, 1.976ko Apirilaren 9ko Lurzoruaren Legeko Testu Birbiduaren V. artikuluan eta hurrengoetan ikusitakoarekin bat.

Ikusirik, mila bederatziehun eta laurogeitabederatziko urtarrilaren 11ko eta hurrengo eguneko argitzearena, Iruñeako Lurralde Entzuteko Salaren, Suspentsioko Autoaz, gaur egundaino desjabetza espedientearen iharduketak eseki zituela.

Ikusirik, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko ekainaren hogeitahiruan, Nafarroako Epaitegi Goreneko Kontentzioso-Administratiboko Sala Indartzeko Sekzioak luzatutako Autoaz, aipatutako esekitzea errebokatzen dela.

Ikusirik, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko uztailaren hamaikako Udal Ebazpenez, banakako desjabetza espedientearen tramitazioekin jarraitzea ihardun zela, Nafarroako Epaitegi Goreneko Kontentzioso-Administratiboko Sala Indartzeko Sekzioak luzatutako Autoaz, afektatutako titularrei, alegaziotako gehigarritzko 15 egunetako epea emanaz.

Ikusirik, hartuaren adierazpenekin eta posta ziuarta-girien bidez, aurreago aipatzen diren datetan, titularrak jakineraziak izan zirela:

CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA, 1.995eko Uztailaren 12an.

JAVIER URKIZAR LARRARTE, 1.995eko Uztailaren 13an.

GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA, 1.995eko Uztailaren 12an.

JOSE M^a AGIRREBARRENAren OINORD., 1.995eko Uztailaren 12an.

JULIAN GENARO OLAETXEA ODRIOZOLA, 1.995eko Uztailaren 12an.

MANUEL BARRIOLA TOLOSA, 1.995eko Uztailaren 14ean, "Dudako Maizter" kalitatean.

Ikusirik, bakoitzari emandako 15 egunetako epean, alegazio hauek egon direla:

MANUEL BARRIOLA TOLOSAk, 1.995eko Uztailaren 27an, Udaletxean sarrera emana; hitzez hitz, honela dio:

"Lizartzako Alkate Jaun Agurgarria:

Idatzi honen bidez 1.995eko Uztailaren 14ean jasotako idatziari erantzun nahi diot. Bertan adierazi nahi dut, ez dudala inongo dudako arrendamenturik, eta dagoeneko zortzi urte daramatzatela Jabier Urkizar Larrarteren lurak, Lizartzako plaza ondokoak, erabiltzen.

Besterik gabe eta behar den lekuan ager dadin, atseginez. Lizartzan, 1.995eko Uztailaren 26ean. MANUEL BARRIOLA TOLOSA".

JAVIER URKIZAR LARRARTE, GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA, GENARO OLAETXEA ODRIOZOLA, CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA eta JOSE M^a AGIRREBARRENA BARRIOLAREN oinorden izenean JULIA

RUIZ DE LA CUESTA GOMEZ Jaun/Andreek, 1.995eko Uztailaren 28an, Udaletxean sarrera emana; hitzez hitz honela dio:

"Lizartzako Alkate Jaun Agurgarria:

Javier Urkizar Larrarte, N.A.N. 15.219.912 zenbakiarekin, eta Berrobiko Usategi-Berri, 3an bizi denak; Gaspar Barriola Irazusta, N.A.N. 15.218.004 zenbakiarekin eta Lizartzako Kale Nagusia, 20 bizi denak; Genaro Olaetxea Odriozola, N.A.N. 15.218.198 zenbakiarekin eta Lizartzako Kale Nagusia, 9 bizi denak; Castor Olaetxea Garaikoetxea, N.A.N. 15.218.191 zenbakiarekin eta Lizartzako Maikinea Baserrian bizi denak eta Jose Maria Agirrebarrena Barriola-ren oinorden izenean Julia Ruiz de la Cuesta Gomez, N.A.N. 15.218.217 zenbakiarekin eta Lizartzako Kale Nagusia, 37 bizi denak.

Idatzi honen bidez 1.995eko Uztailaren 11an egin zen Lizartzako Udalaren Bilkura berezian eta bertan erabaki zen OKUPAZIO BEHARRAREN ERABAKIAREN aurka adierazi nahi dugu:

Bilkura horretan hartutako erabakia legeak agintzen dituen bete beharrak bete gabe hartu zirela, hau da, interes zuzena zuten alkate eta zinegotziak bilkuran egon ziren eta bere botoaz erabakia hartu zen.

Beraz "Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales"ko 185 artikulorekin eta "Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local"ko 76 artikulorekin arabera erabaki hau balioz kanpoko da.

Lizartzan, 1.995eko uztailaren 24ean. Gaspar Barriola. Javier Urkizar. Julia Ruiz de la Cuesta. Castor Olaetxea. Genaro Olaetxea".

Ikusirik, 1.995eko Uztailaren 11ko Udalbatzar Akordioari aurkeztutako arrazoibideei buruzko txostena:

Aurrekinak

Lizartzako Arau Subsidiarioen 3. Arean dauden ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetze prozeduraren izapidetzean, 1.995eko uztailaren 11n bildutako Udaltzarrak ondasun eta eskubideen desjabetzeari buruzko espedientearen izapideekin aurrera egitea erabaki zuen, 20 eguneko epea emanaz kaltetuek arrazoibideak agertzeko aukera izan zezaten.

Epe horretan ondorengo bi arrazoibide hauek aurkeztu dira:

- 1.- Javier Urkizar Larrarte jauna, Gaspar Barriola Irazusta jauna, Genaro Olaetxea Odriozola jauna, Castor Olaetxea Garaikoetxea jauna eta, Jose Maria Agirrebarrena Barriola jaunaren izenean, Julia Ruiz de la Cuesta Gomez andrea.

Arrazoibidearen laburpena: Udaltzar-akordioa hartzean, interes zuzena duten Alkateak eta zinegotziek parte hartu zuten. Beraz, ez dira legezko baldintzak bete.

- 2.- Manuel Barriola Tolosa jauna.

Arrazoibidearen laburpena: Interesatuak ez du "zalantzazko errentariaren" izaera, eta duela 8 urtez geroztik Javier Urkizar Larrarte jaunaren lurak gozaten dihardu.

Azterketa Juridikoa

1. Arrazoibidea.-

Udaltzar akordioa hartzeko orduan, Alkate eta zinegotzien aldetik ustezko interes zuzena salatu da, baina, delako "interes zuzen" horri buruz ondorioak atera ahal izateko, ez da inolako zirkunstantzia konkretu eta

indibidualizaturik zehaztu, ez konkretatu, ez justifikatu, are gutxiago kreditatu: ez da ere, egoera horrek eragin liezaiekeen zinegotzien identifikaziorik egin.

Arrazoibideetan aipatzen diren aginduek, tokiko araudiari buruzkoak, Udal Gorporaziokideen abstentziorako suposamenei buruzko administrazio-prozeduraren legerira igortarazten dute.

Administrazio Publikoen Araubide eta Administrazio-Prozedura Arruntei buruzko 30/1992 Legeak, bere 28.2 artikuluan, Administrazioaren zerbitzuan dauden agintari eta langileen abstentziorako arrazoiak xedatzen ditu.

Bestetik, Lege berdinarekin 29 artikulua, agintari eta langile horiei dagokienez, interesatuen ezezpen prozedura erregulatzen du; delako agindu horren 2 zenbakiak honako hau zehazten du:

"Ezezpena idatziz adieraziko da, eta bertan, oinarritzen deneko arrazoia edo arrazoiak azalduko dira."

Arrazoibidea ezezpen gisa hartzen badugu (nahiz eta idazkian horrelakorik ez esan), oinarritzko eta, aurrera egin ahal izateko, funtsezko baldintza ez betetzea salatu behar da, hau da, 30/1992 Legearen 28 artikulua agintarien abstentziorako aurrikusten dituenen artetik, ezezpenerako arrazoia edo zioa zein izan daitekeen ez zehaztea.

Ez da ere esaten, abstentziorako nolabaiteko arrazoirik izango luketen Gorporazioko kideak zeintzuk diren -Alkatea ezik-.

Beraz, abstentziorako arrazoiei eta kaltetuei buruzko zehazgabetasuna eta konkrezio eza direla eta, ez da bidezkoa ikusten arrazoibidea aintzakotzat hartzea, interesatuek aipatu akatsak konpondu eta behar bezalako ezezpena izapidetzeko duten eskubideari kalterik eragin gabe.

2. Arrazoibidea.-

Desjabetze espedientearen ondorioetarako "zalantzazko errentariaren" izaera duen interesatuak, ez du inola ere 3. Areak dauden lurren errentari dela kreditatzen, eta ez du ere ustez lur horiek erabiltzen eraman dezakeen denbora kreditatzen.

Nahitazko Desjabetze Legearen 4.1. artikulua argi eta garbi adierazten duenez:

"Arrazoibideak, beren izaera behar bezala kreditatuz, desjabetze-gaiari buruzko benetako eskubide eta zuzeneko interes ekonomikoen tituludunek eskatzen duten guztietan onartuko dira, baita errentariak eskatuta ere, hiri edo nekazal higieizinei dagokienean".

Beraz, interesatuak ez duenez bere errentari izaera "behar bezala kreditatzen", bidezkoa da "zalantzazko errentari" gisa kalifikatzen jarraitzea.

Aipatzekoa da, gainera, ustez errentan dauden lurren jabeak, Javier Urkizar Larrarte jaunak, ez duela inoiz zirkunstantzia horren berri eman.

Aldi berean, Jabetza-Erregistroan ez da delako finka horren inolako errenta-titulurik inskribaturik agertzen Manuel Barriola jaunaren izenean.

Adierazi diren arrazoiak direla eta, aurkeztu diren arrazoibideak ezestea proposatu da.

Kontutan hartuaz, Derrigorrezko Desjabetzaren Erregelamenduko 20.gn. artikuluan dioenaren arabera, Okupatu Beharraren Erabakia, Udaleko Plenoak behin betirako onartu behar duela eta testu osoa publikatua eta afektatuei jakinerazia izan beharko dela.

Guzti horregaitik, Udal Plenoari proposatzen zaio:

Lehena.- Zerbitzu juridikoak eginiko txostenaren arabera, 1.995eko Uztailaren 11ko Udalbatzar Akordioari aurkeztutako arrazoibideak ezestea.

Bigarrena.- Aurreago aipatzen diren, espedientean aurre-rantzean emango diren tramiteaz arduratuko diren, afektatutako jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen zehaztutako zerrendaren arabera, Okupatu Beharraren Erabakia behin betirako onartzea:

Jabea: JAVIER URKIZAR LARRARTE

Helbidea: Usategi Berri, 3 - Berrobi

Luze-Zabalera: 1.066,80 m²

Gaur egungo erabilera: Belaza

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Plaza

H - Gaspar Barriola

M - Ignacio Olaetxea

E - Jose M^a Agirrebarrena

Herri Eskolak

Tolosako Jabego Erroldaritzaren Legezko Inskripzioa:

Liburua: 898

Orubea: 990

Folia: 13

Jabea: JOSE M^a AGIRREBARRENA BARRIOLA Jaunaren Oinordekoak

Helbidea: Kale Nagusia, 37 - Lizartza

Luze-Zabalera: 915,60 m²

Gaur egungo erabilera: Laborantza

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Herri Eskolak

H - Julian Genaro Olaetxea - Gaspar Barriola

M - Jabier Urkizar

Gaspar Barriola

E - Araxes Ibaia

Tolosako Jabego Erroldaritzaren Legezko Inskripzioa:

Liburua: 444

Orubea: 602

Folioa: 224 eta hurrengoak

Jabea: JULIAN GENARO OLAETXEA ODRIOZOLA

Helbidea: Kale Nagusia 11 - Lizartza

Luze-Zabalera: 421,40 m²

Gaur egungo erabilera: Laborantza

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Jose M^a Agirrebarrena
H - Castor Olaetxea
M - Gaspar Barriola
E - Araxes Ibaia

Tolosako Jabego Erroldaritzaren Legezko Inskripzioa:

Liburua: 672

Orubea: 787

Folia: 1 eta hurrengoak

Jabea: CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA

Helbidea: Maikinea Baserria - Lizartza

Luze-Zabalera: 2.911,20 m² eta AZTINE baserria deritzan eraikuntza. Eraikuntza honek, behe-oin, altua eta teilatu azpia ditu. Behe-oinaren parte batean, 27,22 m² duen aterpe bat dago. Oinean eraikitako luze zabalero guztiak, aterpea barne delarik, 238,75 m² ditu. Etxearen estruktura, mixtoa da, harri hormazko karga duten, horma eta egurrezko pilare eta habekin. Teilaruaren estruktura ere, egurrezkoa da, teil kurboaz errematatua. Iraunketa egoera txarra da eta bertan, ez da inor bizi. Etxearen ekialdeko fatxada aurrean, bi sagarrondo daude, 22 zentimetro-tako diametroa dutelarik.

Gaur egungo erabilera: Laborantza

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Udala
Gaspar Barriola
Julian Genaro Olaetxea
E - Araxes Ibaia
H eta M - Herri Bidea

Tolosako Jabego Erroldaritzaren Legezko Inskripzioa:

Liburua: 202

Orubea: 479

Folia: 121 eta hurrengoak

Jabea: GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA

Helbidea: Kale Nagusia, 28 - Lizartza

Luze-Zabalera: 886 m2

Gaur egungo erabilera: Belardia

Orube Sailkapena: Hirilurra

Mugakideak: I - Ignacio Olaetxea
Jabier Urkizar
Jose M^a Agirrebarrena
Udala
H - Castor Olaetxea
M - Udala
E - Julian Genaro Olaetxea
Jose M^a Agirrebarrena

Tolosako Jabego Erroldaritzaren Legezko Inskripzioa:

Liburua: 137

Orubea: 438

Folia: 200 eta hurrengoak

Hirugarrena.- Euskal Gobernuako Hirigintza eta Etxebizitzako Kontseilaritzatik, Desjabetza espedientean afektatutako Ondasun eta Eskubideen Okupa-zioaren Premiazko Deklarazio proposamena luzatzeko eskatzea, 3. Areako Derrigorrezko Desjabetzapenari dagokion espediente adminis-tratiboa bidaliaz.

Laugarrena.- Ebazpen honen hurrengo egunetik, Desjabe-tzapen Espedientean, Balio Justuaren espedientea hastea.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako 3. Arearen Desjabetza Espedientearekin afektatutako erasandako ondasun eta eskubideen, okupatu beharraren erabakiaren behin betiko onarpenerako proposamena eztabaidatu ondoren, Herri Batasunako Udalkideen 4 aldeko botoekin eta Lizartzako Herriaren Aldeko Udalkideen 2 aurkako botoekin, gehiengo batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du.